



BARREN
TOKIKOM

Mundutik Mintxetara



EKO KROSA
MUGUERZA ELGOIBAR

Adimenekin Jolasean Sormena piztuZ!!

MATRIKULAZIO EPEA:
URTARRILAREN 25 ETIK
OTSAILAREN 5 ERA.
ATE IREKI EGUNA:
URTARRILAK 30

ELGOIBARKO
HERRI ESKOLA





NORA HADI

“Ba ote dute hizkuntzak eta hitzek zerikusirik gure zoriontasunean?”

Gogoan dut nola hasi nuen azken urte hau: kirola egiten hasiko nintzela, janaria zaintzen saiatuko nintzela, dirua aurrezten hasi behar nuela, dentistara joan behar nuela, BARRENEKO elkarrizketak garaiz bidaliko nizkizula, ... eta hemendik idazten dizut berriro, Garazi, Ospitaletik, ahoko minez zainetik Nolotil bat hartzen ari naizen bitartean. Ez dakit lanera baino, lana ematena natorren...

Ospitaletik telebistara idazten dizut berriro, ziur zu ere lanean harrapatuko zaitudala eta. Kamerek eta orratzek ez dutela zerikusi handirik esango nuke, aldiz, biok letren inguruan partekatzen dugun zaletasunak batuko gintuen *Zozoak Beleari* atalean.

Idazteari eta hizkuntzari diogun maitasuna dela eta, azkenaldian ezagutu eta nire interesa piztu duen hitz bati buruz hitzegin nahi dizut: “hyggelig”. Danimarkarren hitz fetitxea da eta ez

dauka baliokide zuzenik ez euskaraz eta ez beste munduko hizkuntzetan ere. Goxotasun edo erosotasun bezala itzuli genezake, baina sinpleegia litzateke: jertse bat eroso eta goxoa izan daiteke; baita ohe bat ere, baina “hyggelig” hitza hori baino gehiago da, pertsonen bata bestearekiko jarrerarekin ere zerikusia baitauka. Beraz, definizioz ongizate, goxotasun eta apaltasun atmosfera bat sortzea eta bizitzako gauza onak jende onarekin konpartituz disfrutatzea litzateke. Ez al da benetan hitz ederra, Garazi?

Betidanik pentsatu izan dut, hizkuntzak bere hiztunen identitatea eta izaera nolabait definitzen duela. Eta azkenaldian argitaratu diren inkesten arabera, danimarkarrak dira munduko biztanlerik zorionsuenak. Beraz, zer uste duzu zuk Garazi, ba ote dute hizkuntzak eta hitzek zerikusirik gure zoriontasunean?



GARAZI AYESTA



“Bizilagun hitza ez al zaizu zure ondoan bizi diren horiei deitzeko modu ederra iruditzen?”

Ai, Nora... Nola gustatzen zaigun burua altxa eta gora begiratzea, ezta? Danimarkarrak, finlandiarrak, suediarak... ai, gure erreferente horiek. Ai zeinen ondo egiten duten dena, zenbat diru daukaten han goian, zenbat lan, zeinen hanka luzeak eta ile horiak... Ai, han goiko haiek...

Hitz polita lapurtu diezu gure gaurko solasaldirako, Nora, benetan ere. Eta seguru nago, inork baino hobeto dakitela gainera haren esanahia praktikan jartzen. Horregatik (ere) miresten ditugu hainbeste, hemen behetik...


Baina, aizu, esandakoak nire burmuina eta sormena (eta baita galdetzeko kazetari sena ere) martxan jarri ditu, eta gure hizkuntzaren armairuetan barrena sartu naiz. Akonplejatuta edo, geuk ere, horrelako hitzen bat badaukagula nire buruari zin eginez.

Hara non topatu dudan, traste zaharren kajoian, espero ez nuen hitz bat. Edo hobeto esanda, betidanik patrikan sartuta eraman dudana hitz (itxuraz) sinple bat, baina gaur, goxatu egin nauena. “Bizilagun” hitzaz ari naitzaizu, Nora.

Ez al zaizu, zure ondoan, goian, edo bi pisu behe-rago bizi diren horiei deitzeko modu eder bat iruditzen? Bizilagun. Bizilagun, bizitza lagun, edo bizitzeko lagun. Ez al zaizu iruditzen, horrek ere, hein batean ondo deskribatzen gaituela, elgoibartarrok, edo euskaldunok, osatzen dugun komunitate gisa?

Nik beti agurtzen ditut kalean nire bizilagunak, eta hamaika aldiz jo dut beraien atea gatz pixka bat edo zilarrezko papera eskatzeko. Hori ere, ez al da ba oso “gurea”?

Nik behintzat, nahiago dut *comunidad de vecinos* batean bizi baino, bizilagun komunitate bateko parte izan.



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 1821-2013



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► BLUE MONDAY

Cliff Arnall ikerlariak kalkulu batzuk egin zituen, eta horien arabera urtarri-leko hirugarren astelehena izan ohi da urteko egunik tristeena. *Blue Monday* izena jarri zion egun horri.

Arazoirik ez zaio falta, aurten egiaztatu ahal izan dugun moduan. Bete-betea asmatu du Elgoibarren! Gure patroia eguna ospatzeko jai-eguna astehenenera pasatzean, urteko egunik tristeena bizi izan dugu: eguraldi petrala; kaleak hutsik; ospakizunik ez; tabernetan jende gutxi; dendak itxita... eta dendak itxita zeudelako, kaleak are ilunago.

Eskerrak datorren urtean martitzenez

ospatuko dugun San Anton, ez astelehenez.

M.V.L

► HORKONPONMARIANTON?

Zubietako erraustegiaren proiektua berpiztu egin dute gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundian agintean dauden alderdiek (aurreko legealdian EHBilduk bukatutzat utzi zuten arren). Egoera honen aurrean, herri batzuetan hasi dira horren aurkako ekimenak berrantolatzen. Elgoibartarroi badirudi urruti geratzen zaigula gaia hau, hemen ez dutenez egin behar *horkonponmarionton!*

Baina Donostira, Zarautzera, Tolosara, Azpeitira, Goizuetara, Leitzara, Usurbi-

lera, Astigarragara, Hondarribira, Hernanira, Igeldora, Pasaiara, Zestoara, Zumaiara,... joaten gara ezta? Bertako airea harnasten dugu ezta? Oporretara, egun pasa, lanera, jaietara, sagardotegira, senideak bisitatzerara... joaten gara, eta beraz, gaia ez ez da hain urrunekoa.

Informazio gisa: Zubietan erraustegia egiten badute herri horietan minbizia, malformazioak, bihotza eta asma arazoak, leuzemia... bezalako gaixotasunak izateko arriskua handia dute. Beraz, ez da txantxetarako gaia. Elgoibartarrok ere badugu zer esateko, denon osasuna jokoan baitago. Ez Zubietan eta ez beste inon erraustegirik ez!

A.I.



Dionisia Calleja Ruiperez

2016ko urtarrilaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



IV. URTEURRENA

Mari Carmen Gabilondo Etxabe

2012ko urtarrilaren 19an hil zen.

**Lau urtekoa epe hutsala
oroimenak ezin konta ahala
triste bizi naiz eta...
Nahiz eta maittia gurekin
betiko zagozala.**



Negu honetan gerretatik ihesi dabilzan errefuxiatuei arropa bidaltzeko kanpaina jarri du martxan Hotz-Elgoibar taldeak

Hotz-Elgoibar taldea sortu berri da gerretatik ihesi ari diren errefuxiatuei laguntzeko asmoz. "Ihesi dabilzan errefuxiatuen krisiaren aurrean, ezin dugu beste aldera begiratu", uste dute taldea eratu dutenek. "Honelako egoera baten aurrean gizatasunez jokatzeko beharra sentitzen dugu eta hainbat ekintza egiteko antolamenduetan murgilduta gabilza", gaineratu dute.

Dagoeneko abian dago taldearen lehen kanpaina, *berotasuna Elgoibartik* izenekoa. Batez ere, errefuxiatuek neguari aurre egiteko materiala biltzen hasi ziren martitzenean. Jende askok bat egin du deialdiarekin.

Berotasuna Elgoibartik kanpainak honako material hau jasotzen dihardu: lozkuak, mantak, kanping dendak, negu-neguko arropak, negu-neguko oinetakoak, toailak, euritako pontxoak, zirak, guardasolak eta haur txikiak garraiatzeko motxilak. Oinetakoei dagokienez, ero-



Bilketa egiten ari den taldeko kide batzuk.

soak izan daitezela nabarmendu dute antolatzaileek (botak eta trekingeko zapatilak); gizonezkoentzako taila guztiak behar dira eta emakumezkoentzako 36-39 tailak batez ere.

Antolatzaileek espresuki eskatu dute goiko zerrenda ondo begiratzeko eta horik kanpoko beste ezer ez eramateko.


Bilketa Aita Agirre plazako Gurutze Gorriaren lekalean egiten ari dira. Goizez 11:00etatik 13:00etara batzen ari dira materiala, eta arratsaldez, 16:30etatik 19:30etara. Zapatuan goizez baino ez

dira ariko eta domekan ez da bilketarik izango. Bilketa urtarrilaren 25ean amaituko da. Horrez gain, kanpainarekin bat egiten duten denda eta tabernetan itsulapikoak jartzeko deia ere egin dute.



Esbastikak Garagartzako elizpean

Esbastikak margotu dituzte Mendaroko Garagartza elizako paretan, lurrean eta ateetan. Mendaroko Udala gaia ikertzen ari da, eta Ertzaintzari eman dio gertatutakoaren berri. Garagartza eliza garbitzeaz arduratzen den laguna zapatu goizean (abendukoak 16) konturatu zen elizako kanpoaldea pintadaz josita zegoela. Denera bost esbastika margotu zituzten elizako arkupeetako hormetan, zoruari eta sarrerako ateetan. Orain dela gutxi, urtarrilaren 7an, ezezagunek antzeko pintadak egin zituzten Zumaiako Arritokietako ermitan.



Arnaldo Otegik 2021era arte kargu publikorik gabe egon beharko du, Auzitegi Nazionalaren arabera

Arnaldo Otegik kargu publikorik ez izateko beste pauso bat eman du Auzitegi Nazionalak astelehenean: 2021eko otsailera arte "inhabilitazio berezia" izango duela berretsi du, eta bitarte horretan ezin izango duela kargu publikorik izan. Bera zigortu zuten sententzietan, ordea, zehaztu gabe gelditu zen zein karguri aplikatu behar zitzatzaion inhabilitazioa. Defentsak helegitea jarriko du Gorenean. Bestalde, hainbat musikaririk eta artistak bat egin dute Otegiaren askatasuna eskatzeko, eta *Free Otegi, free them all* bideoklipa kaleratu dute. Hainbat artista ezagunek parte hartu dute bideoklipetan, esaterako, Mursegok, Unai Iturriagak, Ines Osinagak, Pettik, Niko Etxartek edo Aitor Gorosabelek. Elgoibarko Jon Gurrutxagak eta Uxue Alberdik ere parte hartu dute proiektuan. Bideoklipa TAOMek ekoitzi du eta crowdfunding bidez finantzatu dute.



Hainbat musikaririk bideoklipa kaleratu dute.

'Bakea eta Bizikidetzak' jardunaldiak antolatu ditu Elgoibarko Udalak

Bakean eta bizikidetzan sakontzeko jardunaldi batzuk antolatu ditu Elgoibarko Udalak datozen egunetarako. Urtarrilaren 27an, eguaztena, hasiko dira jardunaldiak *Glencree* dokumentalarekin. Kultur Etxean. Ikuspegi politiko ezberdinak dituzten pertsonen besteen mina ulertu eta berradiskidetze prozesu bati ekiteko urratsa ematen dutela ikusi daiteke. Dokumentalaren ostean, mahai-ingurua izango da, Marixabel Lasa eta Eduarne Brouard hizlariekin. Ekitaldi hau Kultur Etxean izango da, 19:00etatik aurrera.

Urtarrilaren 28an, berriz, *Invictus* filma eskainiko dute, Herriko Antzokian, 21:30etik aurrera. Clint Eastwoodek 2009an zuzendu zuen film hau benetako gertakizunetan oinarrituta dago, Hegoafrikan 1995. urtean jokatu zen Munduko Errugbi Kopan, *apartheid* garaia amaitu berri-berriak zirenean, Nelson Mandelak izandako papera kontatzen da.

Otsailaren 3an, berriz, hitzaldia eskainiko du *Memoria partekatuta bateruntz*, Sabino Ormazabalek Kultur Etxean. Indarkeria-ez aktiboaren bultzatzaileak Errenteriako esperientzia azalduko du.

Matrikulazio epea zabalik
Elgoibarko Haurreskola 943 742 141

Etorri eta ezagutu gure eskola!

www.haurreskolak.net

Franco garaiko arkitektua kalerik gabe?

Pedro Muguruza aipatuta Elgoibarko kale bat dela badakite herritar gehienek. Askok, ordea, ez daki zein dagoen izen horren atzean. Arkitekto elgoibartarra izan zen, batez ere Francoren diktadura hasieran egindako lanengatik ezaguna. Besteak beste, Erorien Harana (Valle de los Caídos). Memoria Historikoaren legean oinarrituz, Madrilen izena aldatu nahi diete hainbat kale, etorbide eta plazari, besteak beste Pedro Muguruza kaleari. Legeak Administrazio Publikoei eskatzen die altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren erreprentazioaren ezkutak, intsigniak, plakak eta gorespenerako edo oroitzapenezko aipamenak eta objektuak kentzea.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Pedro Muguruzari (eskuatik hasita bigarrena) Elgoibarren egin zioten omenaldian.

Pedro Muguruza etorbidea, Maalatik gora dago Elgoibarren eta Chamartin auzoan Madrilen ere bada kale bat izen horrekin. Madrilen, 2015eko azaroaren amaieran mozio bat aurkeztu zuen alderdi sozialistak epe bat proposatuz kale, etorbide, plaza, ikastetxe eta monumentu izen frankistak zein ziren eta zein desagerrarazi behar ziren adosteko, baita ordezko izenak erabakitzeke. Memoria historikoa berreskuratzeko elkarteak 200 izenetik gora jaso ditu, legeak jarritako baldintzei erreparatuz, Antonio Ortiz Mateos historialariak egindako zerrendan. PSOEk aurkeztutako mozioa Ahora Madridek babestu arren, ez zuen baieztatu botorik eman. Abenduaren amaieran, ordea, zerrendako 30 aukeratu zituen Ahora Madridek eta zerrenda orokorrean badagoen arren, 30 horietan ez da ageri Pedro Muguruzaren izena, hala ere baliteke aurrerago erretiratzea.

1893an Elgoibarren jaio eta 1952an Madrilen hil zen Pedro Muguruza arkitektoa. Francoren lehen aholkulari, Espainiako Gorteetako prokuradorea eta frankismoaren aldeko izanik kargu garrantzitsuetan aritu zen. Besteak beste Francoren gerraosteko arkitektura zuzendari nagusi izan zen. Ez zuen soilik arkitektura zibilean parte hartu, frankismoaren eraikin handi eta sinbolikoena

Erorien Haraneko arkitektoa izan zen Muguruza.



ere osatu zuen: Erorien Harana (Valle de los Caídos); gaixotu artean bera izan zen arkitektu gidaria. Baina Francoren proiektu pertsonala izanik, diktadurako hainbat eragile eta artistek hartu zuten parte eta Muguruzarena gurutzea da.

Madrilgo Udalean esku artean duten gai honen harira, Erorien Haranaren babesteko elkarteak monumentuaren arkitektua goraiatzear gain, beste adierazpen batzuk ere egin ditu. Madrilgo PSOEk Prentsaren jauregian du bere egoitza eta eraikina Pedro Mu-



lñigez Karkizao kalean kendu gabeko ikurra.

guzuzaren lana denez, eskatu diote egoitza “frankista” hori uzteko. Era berean esan du Pedro Muguruza kale-izendegitik kanporatuz gero, epaitegietara joko duela.

LEHEN FASEAN EZ

Udalean esan dute lehen fase honetan lanean ari dela Memoria Historikoan aditua den Unibertsitate Konplutentseko talde bat. Plangintza apirilerako amaituta egongo da. Memoria historikoaren legea betetzen ez duten kale izenak zehazteko irizpide legal, historiko eta geografikoak hartuko dira kontuan.

Eroritako Haranaren Babeserako Elkarteak adierazi du Charmartin auzoko kaleari Pedro Muguruza izena kentzea Madrilgo kultura eta arte historiari eraso egitea litzatekeela, arkitektu esanguratsua izan zelako eta monumentu zein eraikin garrantzitsuak egin zituelako Madrilan.

ELGOIBARREN BESTE IKUR FRANKISTAK

Madrilgoak ezezik Euskal Herriko paisaia asko ere aldatu zituen, esaterako, Donostia eta Bilboko Jesusen Bihotzen egilea da. Pedro Muguruza Elgoibarko adopzio- seme izendatu zuten 1943an, seme kutun 1946an eta kale batek bere izena du oraindik herrian. Ane Beitia alkateari galdetuta, esan du oraindik ez dutela aztertu beren legegaldian Pedro Muguruza kaleari izena aldatzeko gaia. “Frankismo garaiko arkitektua eta Francorekin lan egindakoa zela jakin arren ez diogu gaiari erreparatu, baina horrek ez du esan nahi aurrera begira egingo ez dugunik. Landu beharreko gaia da, baina ez premiazkoa”. Frankismo garaiko plakak kendu zituzten herrian, “lñigez Karkizao kaleko etxe batzuetan dagoen bat salbu eta hori kentzea aurreikusita daukagu, data zehaztu gabe badago ere. Gainera, kenduz gero fatxada konpondu beharko litzateke”. Bestalde, jakinarazi du orain dela gutxi kale izendegia berritu dutela, laster kaleratuko dutena eta horri begira Pedro Muguruza kalearen izenari ez zaiola bereziki erreparatu.

Elgoibar 1936 elkarteak uste du Memoria Historikoaren legea aplikatu behar dela Udal guztietan eta horren arabera kendu behar direla zeinuak, eta tartean, Pedro Muguruza kaleari izena aldatu. Aurreko alkateari azaldu zion bere nahia taldeak, baina oraingoari ez dio eskaera ez dute gai horri buruz hitz egin. Dena dela elkarteak uste du ez dela erraza izango. “Pedro Muguruza gerra aurretik Elgoibarren izen oneko familia batekoa zen eta orduan ere egin zioten omenaldia. Onartzen dugu gizon garrantzitsua izan zitekeela Elgoibarren, eta eraikinak ere egin zituela. Baina faxismoarekin jarraitzeko erabakia hartu zuen, beraz, uste dugu ez dela kale bati jartzeko izen egokia. Hala ere, egongo

MUGURUZAREN LAN AIPAGARRIAK

MADRIL

- ◆ **Coliseum (1931-1933)**
- ◆ **Etxebizitza eraikina Alfonso XII kalean (1924-1926)**
- ◆ **Prentsaren jauregia (1924-1928):** Garai hartako Madrilgo eraikinik altuenetakoa.
- ◆ **Cine Callao (1928)**
- ◆ **Marques de Ibarra eraikina (1929-1931)**
- ◆ **Maravillas merkatua (1933-1942):** Obra arrazionalista. 1933an proiektua egin eta 1942an amaitua.
- ◆ **Santa Maria del Paular monasterioa (1922-1951)**
- ◆ **Prado museoa:** Eraikin Erdiko eskailera nagusia berritua (1923-1925). Galeria nagusiaren birmoldatzea eta ipar fatxadako eskailera kriptari argitasun gehiago emateko (1943-1946).
- ◆ **Corteko espetxea:** Berritu. Gaur egun Santa Cruz jauregia. Atzerri eta kooperazio ministerioaren egoitza. 1930ean, 1941an Gerra Zibileko kalteen ondoren eta 1950ean handitu.
- ◆ **La Latinako ospitaleko portalea**
- ◆ **Real antzokia (1932-1942)**
- ◆ **Lope de Vega museo-etxea (1932-1935)**
- ◆ **Izotz eta automobilaren jauregia (1933):** Berritu.
- ◆ **Santa Cristina eliza (1940-1953)**
- ◆ **Eroritakoen monumentua:** Eskoriatleko San Lorentzon. 1940an hasi, baina gaixotasun batengatik utzi zuen eta 1948an hil zen lanen %30 eginda.

BARTZELONA

- ◆ **Estacion de Francia (1924-1929)**

VALENTZIA

- ◆ **Saguntoko Hiri Erromatarra berritua (1915)**

EUSKAL HERRIA

- ◆ **Jesusen Bihotzak:** Bilbo (1921-1925). Donostia (1950)
- ◆ **Francisco Navarro Villosladaren monumentua (1918):** Iruñea.
- ◆ **Arrantzaleen etxeak (1939-1946):** Hondarribia
- ◆ **Karlos V.aren eraikuntza (1940-1942):** Hondarribia

da izen hori kentzearen aurkako jendea”, dio elkarteko kide lñaki Odriozolak.

Elgoibarko beste ikur frankista esanguratsu bat ere aipatzekoa dela uste du lñaki Odriozolak: Morkaikoko gurutzea. “Jende askok ez du jakingo gurutze horren esanahia eta pentsatuko du beti hor egon dela, baina ikusi dugu, argazkietan bada ere Morkaiko gurutzerik gabe, beraz, kentzekoa litzateke. Izan ere, Elgoibarko ple-noak erabaki zuen eraikitzea 1942-1943an, hor hildako Borboi baten omenez. Faxistek eraiki zuten, beraz, kentzekoa litzateke”. Herrian horrelako ikurrak egon arren, inork gutxi erreparatzen diela dio. “Jendea ez da konturatu portalen aldamentetik pasatzerakoan ikur frankistekin”.

Lotsarik ez daukanarentzat kale guztia berea dela dio esaerak. Batzuek lotsagarritzat dute Pedro Muguruzak bere kalea izatea, baina ikusteko dago izena aldatuko al dioten.

Txikibarren

Enteratu al zara sekreturen batekin espiatuz?



Unai Cornejo
(Elgoibar, 7 urte)

Bai. Egun baten lagun batek esan zuen: "Unai ez da sartuko klubean", eta nik entzun nien eta "badakit zer esan duzuen", esan nien, beraz, hasieran sekretua zena jakin nuen. Ni ere espiatzen naute, baina ez da nahikoa ezkutatzen nik badakiteta.

Elene Carrillo
(Elgoibar, 8 urte)

Jolasean jendea espiatzen ibili izan naiz, baina ez naiz sekretuekin enteratu. Guk dena esaten dugu altuan, ez dugu sekreturik. Bueno, batzutan sekretuan gordetzen ditugu lanak beste inork guri ez kopiatzeko.



Eneko Jausoro
(Elgoibar, 7 urte)

Batzutan bai. Lagunekin jolasean espiatzen ibili naiz, baina ez daukat gogoan zein izan zen sekretua, aspaldi izan zen eta ahaztuta daukat. Nik ere sekretu txiki batzuk gordetzen ditut, baina egunen baten beharbada kontatuko ditut eta orduan ez dira sekretu izango.

Junkal Gorosabel
(Elgoibar, 7 urte)

Batzutan nire lehengusina espiatu izan dut eta bere amak haserre egiten dihonean ni entzuten egoten naiz, baina sekretuekin ez naiz enteratzen. Ni gainera isilik egoten naiz eta sekretu batzuk gorde egiten ditut.



Saioa Etxeberria
(Elgoibar, 7 urte)

Lehengusinarekin lagun batzuk espiatzera joan eta beraiek enteratu egin ziren. Baina espiatuz ez naiz sekretuekin inoiz enteratu. Nik sekretuak gorde egiten ditut ze ezin dira esan eta niri ere ez dizkit inork kontatu.



Gari Gonzalez
(Elgoibar, 7 urte)

Zaila da enteratzea, sekretu bat bada... Baina behin lagun batek sekretu bat kontatu zidan eta beste bat egon zen gu espiatzen sekretua jakin nahi zuelako. Ni eta lagunak jolas-orduren baten txikiak, nire anaia eta bere lagunak espiatzen ibili izan gara, baina ez sekretuekin enteratzeko.



Julen Zubizarreta
(biloba)



M^o Carmen Goikoetxea
(amama)

Lagun ona. Besteei laguntzeko prest egoten naiz beti.

Nolakoa zara lagun artean?

Alaia naizela iruditzen zait.

Bart Simpson. Egiten dituen bihurrikeriak gustuko ditut.

Zein marrazki bizidun izango zinateke?

Garai bateko La abeja Maya. Orain umeekin Bob esponja eta txakurarenak ikusten ditut.

Plaza handia, lagunekin gehienetan han egoten naiz jolasean.

Elgoibarko txoko bat.

Maala. Senarra zenak han izan zuen bizikleta alkilerria eta han ordu asko pasatu nituen.

Karabina bat. Osabak oparitu zidan eta txabolara joaten garenean han ibiltzen naiz.

Sekula egin dizuten oparirik politena?

Nire gizona hil ondoren, Aranburu bitxidendan, zintzilikari bat oparitu zidaten berarekin asko gogoratzen zirelako.

Beltza gustatzen zait.

Zein da zure kolore gustukoena?

Gorria da gehien gustatzen zaidana, baina nik erabiltzen dudana beltza.

Skate parke bat jartzea erdigunetik gertu. Herrian dauden hirurak Urazandin daude

Zer eskatuko zenioke herriko alkateari?

Ni konforme nago daukagunarekin, zer falta den gazteek jakingo dute.

Venezuelako Los Roquesera joango naiz datorren udan. Laponian ere egon nintzen eta asko gustatu zitzaidan tokia

Nora joango zinateke oportetara?

Oporretan hemen inguruan ibiltzen naiz gustura mendi aldean. Kanpora joatekotan, Norvegiara.

Ez diot helbururik jarri, baina orain bezala jarraitzea ez legoke gaizki.

Aurtengorako zure buruari jarritako helburu bat.

Euskal dantzak ikastea. Orain arte nire kasa ibili naiz, baina orain irakasleari jarraituko diot.





Tomas Astigarraga Lizarralde

"Torre"

2016ko urtarrilaren 18an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Antonio Berasaluze Bernedo

2016ko urtarrilaren 14an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Etxekoak



Asier Suarez Barrutia

***Ustekabean, gaitz krudel batez,
gelditu zaigu hilotza,
zorigaiztoko ezten zorrotzak
zulatu digu bihotza.***

***Bete ezineko hutsunea,
bakardade sentipena,
horregatik negar malkotan
hustutzen zaigu barrena.***

***Hala ere geldituko zaigu
hemen bildu gaituena,
gurekin beti izango dugu
Asierren oroimena.***

2016eko urtarrilaren 15ean hil zen.

Zure familia



Israelgo Poliziak ez dio laga Pablo Garridori Palestinan sartzen, baina lortu du bildutako arropa hara bidaltzea



Arg.: Leire Iturbe



Haur palestinarrek, Jordaniako errefuxiatu kanpamendu batean, BARRENen azal batekin. Garridok (goian) haien egoera ezagutu du.

E lgoibarren eta Eibarren 100 kilo arropa eta 30 kilo eskola material jaso ondoren, Palestinarantz jo zuen Pablo Garridok Gabonetako oporretan. Bilketa guztia eta bidaia bere kabuz egin bazuten ere, CAPP Palestinako herriaren aldeko fundazioaren babesa zuen.

Jordaniara iristean, bere plana zen Palestinako muga oinez zeharkatzea. Bildutako material guztia bi orgatxotan zerman. Mugan, Israelgo poliziek eta soldaduek gelditu egin zuten. Aparteko leku batean bost orduko galdeketa "desatsegina" egin zioten. "Mespretxuz tratatu ninduten", dio. Muga zeharkatuz gero bere bizitza arriskuan jarriko ohartarazi zioten mugako soldaduek eta poliziek, eta hori mehatxutzat jo zuen Garridok. "Palestinako haurrentzat arroparekin sartzen banaiz, nork egingo dit eraso?".

"Galdeketetan denetatik okerrera itzultzailea izan zen. Poliziak galderaren bat egiten bazidan, itzultzaileak bost egiten zizkidan bere kabuz", adierazi du.

Zigiluak pasaportean

Mugan bera bezala erretenituta beste palestinar batzuk ere ikusi ahal izan zituen. Haiiek ere mespretxuz tratatzen zituzten.

Garridok pasaportearen erakutsi dio BARRENi. Israeleko sarrera-zigilua dauka, bi marrekin tatzatua eta "sarrera ukatua" dioten beste bi zigilu ditu gainean.

"Flotillei eraso egiten badiete, zer pentsatuko dute niregatik? Tipo hau hemen bera bakarrik bi karrarekin zertan ari da, guri adarra jotzen?", egin du gogoeta. "Nirea egun bateko kontua baino ez da izan, baina han palestinar askok egunero-

egunero zeharkatu behar dute muga, eta egoera hori egunero pairatzea ere!".

Errefuxiatuen kanpamenduan

Bost orduko galdeketa ostean, autobus batean sartu zuten Pablo, bera bakarrik. Horrela itzuli zuten Jordaniara.

Gero, Jordanian hotela hartu eta CAPP fundazioarekin jarri zen harremanetan. Gobernuaren kanpoko erakunde horren bitartez bidali ditu arropak Palestinako umeentzat.

Azkenean, Palestinan ez, Jordanian eman ditu bi aste. Arropa premia duten haurrei bidaltzea lortu ez eze, palestinarren egoera ere gertutik ezagutzeko aukera izan du. Jordanian errefuxiatuta bizi diren palestinarren kanpamenduak bisitatzeko aukera izan du eta pertsona horien bizi-baldintza gogorren lekuko izan da.

Debarreneko orfeoia entseguak egiten hasi da



Debabarreneko orfeoia hasi da lehen doinuak abesten. Hainbat obra sinfoniko kantatzeko asmoz sortu da taldea eta egungo autoreen obra errazekin hasi dira kideek nola abesten duten jakiteko. 25 lagun daude orain, horietatik 10 elgoibartarrak. Gehienaka emakumeak dira, baina orfeoia osatzeko gizonetzkoen zain daude. Beraz, orfeoiko kide izan nahi duten pertsonak helbide honetara idatzi behar dute: dborfeoia@gmail.com

Entseguak Eibarren egiten hasi dira, hamabostean behin, domeketan, eta pare bat orduz aritzen dira kantuan. Ez dute baztertu aurrerantzean beste herri batzuetan ere egitea entseguak. Jendaurreko kantu saioak noiz egingo dituzten ez dakite oraindik. Horietan Jose Migel Laskurain izango da gidari.

Santa eskerako deia

Elgoibarko Izarrako taldeak Santa Ageda bezperan (otsailak 4), 14:30ean hasita, baserri kantuan irteko asmoa du. Koruetan parte hartzeko urtarrilaren 29ra arteko epea dago izena emateko Elgoibarko Izarraren Ubitarte 4ko lokalean, 943 741 626 (Imanol) telefono zenbakian edo helbide honetara idatzita: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Bestalde, Mendaron, urtarrilaren 30ean egingo dute santa eskea. 8:30ean udaletxe aurrean elkartu eta hiru taldetan auzo eta baserrietan ibiliko dira. Koplatan *Mañukorta*, Asier Lazarobaster *Agarre*, Aitzol Urain *Bidaburu*, Beñat Ugartetxea, Beñat Lizaso eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* arituko dira.

Mus txapelketa zapatuan

Euskal Herriko VIII. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu da urtarrilaren 23an, zapatuan, 16:00etan, Lanbroan. Izen-ematea 20 euro da eta partidak hasi aurretik egin ahal izango da tabernan. Irabazleek lau lagunentzako jatordua jasoko dute Lanbroan eta bigarrenek birentzat.

Eskualdeko turismo-eragile publikoek bisita teknikoak egin dute

Debarreneko Turismo-eragile Publikoen Mahaiko kideek bisita teknikoak egin zuten eskualdean baliabide turistiko nabarmenenak gertutik ezagutu eta eskaintza turistikoaren ikuspegi orokorra jasotzeko. Bisitan Eibarko Armagintzaren Museoa, Mendaroko txokolate fabrika eta Mutrikuko Nautilus Interpretazio Zentroa eta alde zaharra ikusi zituzten. Asteon Fitur Nazioarteko Turismo Azokan, Madrilan, aurkezten ari dira bailarako eskaintza turistikoak.



Zeramika ikastaroan parte hartzeko aukera dago oraindik Egurren



Egur arte eskolaren zeramika ikastaroa martxan da 6 urtetik gorako umeentzat. Eskolak eguazten arratsaldeetan dira 17:00etatik 19:00etara (ordutegia malgua da moldatzeko aukerarekin). Oraingoz zortzi ume ari dira, eta ariketak beren mailara moldatzen dituzte. Izena emateko 666 557 538 telefono zenbakira deitu behar da. Zenbait urtetako etenaren ondoren, aurten helduen taldea ere jarri dute abian.

Idoia Rodriguezen lanak irabazi du C.D. Elgoibarren logotipo lehiaketa



Club Deportivo Elgoibar futbol taldeak datorren urtean ospatuko duen mendeurren ekitaldietarako logotipo lehiaketa antolatu zuen, eta Idoia Rodriguez eibartarrak aurkeztutako logotipoa saritu dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, logotipoak diseinu artistikoa, oraingoa, sinplea eta erraz ezagutzeko modukoa izan behar zuen, bai eta C.D. Elgoibar identifikatzeko egokia ere. Epaimahaikide lanetan jardun duten kideen iritziz, Idoia Rodriguezek aurkeztutako lanak betetzen zituen ondoen ezaugarri horiek, eta honenbestez, berari eman diote 300 euroko saria. Guztira 14 lan aurkeztu dira.



Emaitzak

FUTBOLA

Mutriku 2 - Haundi 1
Elgoibar 3 - Bergara 0 (1. Erreg.)
Aretxabaleta 1 - Elgoibar 0 (Jubenilak)
Elgoibar 5 - Urki 1 (A Kadeteak)
Antzuola 1 - Elgoibar 1 (B Kadeteak)
Bergara 2 - Elgoibar 1 (Oho. inf)
Orereta Kafea 0 - Elgoibar 3 (Inf. Txiki)
Antiguoko 4 - Elgoibar 2 (Aleb.)
Soraluze 7 - Elgoibar 3 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 6 - Labastida 4 (Naz. B)

PILOTA (SAN ANTON TXAPELKETA)

Salaberria/Aranguren 22 - Lereña/Salaverri 14 (Promesak)
Errandonea/Martinez 22 - Salaberria/Murgiondo 17 (Nagusiak)

SASKIBALOIA

Viento Sur 68 - Don Jabugoe Erroibide 67

ESKUBALOIA

Erromo 23 - Alcorta Forging Group 32 (Senior giz.)
Haritza 23 - Gabaz Elgoibar 23 (Sen. giz.)
Errotabarri 28 - Tecnifuelle 26 (Jub. nes.)
Leizaran 23 - Beristain Banaketak 25 (Jub. mut.)
Errotabarri 26 - Pneumax Elg. 27 (Kad. nes.)
Bidasa 17 - Casa Astigarraga 16 (Kad. nes.)
Bankoa Elg. 30 - Deca Elg. 34 (kad. mutilak)
Darioibus Elg. 29 - Aloña Mendi 28 (Inf. mut.)
Cometel Elg. 30 - Aiala B 23 (Inf. nes.)
Federopitkos Ikus 4 - Eibar A 27 (Inf. nes.)
Zarautz A 21 - Hotel Txariduna 16 (Inf. mut)
Murgil Elg. 29 - Oñati 16 (Inf. mut)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 24
12:30 Concepto Egile - Ibarra (Naz. B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23
12:00 Elgoibar - Amaikak Bat (Oho. Jub.)
16:00 Haundi - AGetariako Keta

ESKUBALOIA (Olaizagan)

Zapatua, 23
10:00 Txariduna - Amenabar B (Inf. nes.)
11:15 Deca - Amenabar (Inf. mut.)
16:00 Pneumax - Zuazo (Kad. nes.)
17:30 Tecnifuelle - Zuazo (Jub. nes.)
19:00 Astigarraga - Tolosa (Kad. nes.)
Domeka, 24
10:00 Beristain - Leizaran (Jub. mut.)
11:45 Gabaz Elg. - Egia (Senior giz.)

Bi elgoibartar Toyota Euskoauto master mailako taldean

Master mailako lasterketetan lehiatuko den Toyota Euskoauto txirindulari taldea aurkeztu zuten urtarilaren 16an. Ordiziako taldea izan arren, lotura handia du Elgoibarko herriarekin. Batetik, Gobike bizikleta denda, Txariduna Hotela eta Eibartrans dira babesleak. Eta, bestetik, taldeak artean bi dira Elgoibarkoak, Ramon Garcia eta Iban Gonzalez. Euskal Herriko master egutegia osatzea izango da bien helburua. Azken proban, Urbasako Igoeran, Ramon Garcia lortu zuen garaipena eta bosgarren postua lortu zuen Iban Gonzalezek.



Munduko zortzi kros onenen artean, bigarrenengoz

Juan Mugertza Nazioarteko Krosaren 73. edizioa jokatu da domekan Mintxetako zirkuituan. Nazioarteko Atletismo Federazioak (IAAF) munduko kros lasterketen egutegian sartu du Elgoibarkoa, bigarren urtez jarraian, munduko zortzi kros onenen artean, alegia. Mintxeta atletismo taldeak antolatutako 15. krosa izango da aurtengoa eta mundu mailako antxitxikiak ekarri dituzte, beste behin ere. Omenaldientzako lekua ere izango da. Batetik, Mamo Wolde atleta etiopiar mitikoaren semea eta alaba omenduko dituzte zapatuan; eta, bestetik, Eamonn Martin atleta ingelesa ere omenduko dute domekan Mintxetan; azken hori 1991n garaipena eskuratu zuenetik 25 urte betetzen direla-eta.

- ASIER ORBEA -



Martitzenean aurkeztu zuten krosa udallexean, eta leku berean egingo diete atletei ongi-etorria, zapatuan.

Mundu osoko korrikalaririk onenak Elgoibarrera ekarri ahal izateko 90.000 euroko aurrekontua osatu behar izan du Mintxeta Atletismo Taldeak eta horretarako urte guztian "gogor" lan egin behar izan dutela nabarmendu du Zigor Diezek, lasterketako zuzendariak. Ahalegin horretan bidelagun izan dute Elgoibarko Udala orain arte, eta hurrengo lau urteetan ere hala izaten jarraitzeko hitzarmena adostu berri dute bi aldeek. 100.000 eta 120.000 euro arteko diru-laguntza emango dio Udalak Mintxetari datozen lau urteetan, krosak urte bakoitzean izango duen mailaren arabera. Kirol lehiari dagokionez, aste hasieratik Elgoibarren dira proba irabazteko faborito nagusiak, afrikarrak ia denak. Emakumezkoen lasterketako parte-hartzea "goi mailakoa" da Zigor Diezen arabera. Bere esanetan, Netsanet Gudeta eta Alemitu Heroye etiopiarrek eta Irene Chepet Cheptai

keniarrek borroka polita eskaini dezakete. Gudetak brontzezko domina eskuratu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan, Txinan. Lasterketa horretan laugarren postuan sailkatu zen Alemitu Heroye. Azken honek, gainera, ezagutzen du Mintxetako zirkuitua, 2014an txapeldunordea izan baitzen Elgoibarren.

Gizonezkoetan 2013ko eta 2014ko irabazleak, Coneslus Kipruto eta Timothy Toroitich ekarri dituzte antolatzaileek, baina Tamirat Tola etiopiarra nabarmendu dute. Izan ere, Alcobendaseko krosa irabazi ostean, Sevillan jokutzen den Italicako kros prestigiotsuan ere gailendu zen, joan den domekan. Sasoi betean iritsi da Elgoibarrera. Guztira 700 bat atleta arituko dira lehiari, hamar lasterketatan banatuta. 10:00etan hasiko da krosa; Senior emakumezkoena 12:30ean eta 13:10ean gizonezkoena.



DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO KORRIKALARIAK



TAMIRAT TOLA

(Etiopia, 1991)

- ◆ 2015eko Munduko Kros Txapelketan 6. postuan sailkatua.
- ◆ 10.000 metroko lasterketen rankinean 15. postuan dago.
- ◆ Alcobendaseko (Madril, Espainia) eta Italicako (Sevilla, Espainia) krosak irabazi ditu denboraldi honetan.



TIMOTHY TOROITICH

(Uganda, 1991)

- ◆ 2014ko Mugertza kroseko irabazlea.
- ◆ 8. postua lortu zuen Pekinen jokaturako Munduko Txapelketan, 10.000 metroko lasterketan.
- ◆ Txapeldunordea Atapuercako krosean eta 3. postua Italican.



CONSESLUS KIPRUTO

(Kenya, 1994)

- ◆ 2013ko Mugertza kroseko irabazlea.
- ◆ 3.000 metroko traba lasterketan munduko txapeldunordea, birritan: 2013 eta 2015 urteetan.
- ◆ 3.000 metroko traba lasterketen munduko rankinean 4. postuan dago.



MOSES KIBET

(Uganda, 1991)

- ◆ 8. postua lortu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan.
- ◆ 3. postua lortu du Zornotzako krosean eta 5. postua Atapuercakoan.



NETSANET GUDETA

(Etiopia, 1991)

- ◆ 3. postua lortu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan, Txinan.
- ◆ 10.000 metroko traba lasterketen munduko rankinean seigarrena da.
- ◆ 2014ko maratoi erdiko munduko txapelketan 8. postuan sailkatu zen.



ALEMITU HEROYE

(Etiopia, 1994)


- ◆ 4. postua lortu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan, Txinan.
- ◆ 10.000 metroko traba lasterketen munduko rankinean bigarrena da.
- ◆ 2014ko Mugertza kroseko txapeldunordea.
- ◆ Junior mailako munduko txapelduna 2014an, 10.000 metroan.



IRENE CHEPET CHEPTAI

(Kenya, 1992)

- ◆ 7. postua lortu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan, Txinan.
- ◆ 5.000 metroko traba lasterketen munduko rankinean 11. postuan dago.
- ◆ 2014ko Mugertza krosean txapeldunordea.



TRIHAS GEBRE

(Euskal Herria, 1990)

- ◆ 15. postua lortu zuen 2015eko Munduko Kros Txapelketan, Txinan.
- ◆ 11. postua lortu zuen 2015eko Europako Kros Txapelketan, Frantzian.
- ◆ Txapelduna 2015eko Espainiako Kros Txapelketan.

LANA.....**Eskaerak**

Garbiketa lanetarako edo adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Orduka edo gauetan. 638 338 816

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. 664 507 554

Orduka, interna edo gauetz adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. 633 808 931

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. Interna zein orduka ere egingo nuke lan. 671 487 790

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 638 338 816

Adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia handia eta erreferentziak dauzkat. Interna moduan aritzeko prest. 631 506 763

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest: etxeetan, tabernetan, portaletan... Sukaldari laguntzaile lanak ere egingo nituzke. 628 738 472

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 27 urte. Esperientzia dut. 632 372 864

Pintura eta obretan esperientzia handia. 35 urte. Merke lan egiteko prest. 634 245 882

Pertsona euskalduna etxeko lanak egiteko edo eta umeak zaintzeko prest. Orduetegi malguta. 605 741 485

Adineko pertsonak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan aritzeko prestutasuna. Erabateko disponibilitatea. Gida-baimena daukat. 631 343 232

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egiten edo lantegietan ere lan egingo nuke. Orduka lan egiteko prest. 667 301 325

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko prest. 632 687 874

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo jardunaldi erdira goizetan. 602 419 142

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke Elgoibar inguruan. 640 340 848

Sukalde laguntzaile lanetan aritzeko prest, garbiketa lanak ere egingo nituzke.

636 882 838

Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. 617 571 210

Eskaintzak

Esperientziadun tabernaria eta sukaldari laguntzailea behar dira Elgoibarko taberna baterako. Informazio gehiago eskatzeko eta Curriculum Vitae-a bidaltzeko helbidea: tabernalan@gmail.com

Pertsona bat behar da lantegi batean makinan lan egiteko, marrazketa eta autocad ezagutzak beharrezkoak dira. Berehala hasteko. 671 555 268

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

Elgoibarko enpresa batek fresatzeko CNC makina batean lan egiteko pertsona behar du. 943 744 066

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxebizitza emango nuke alokairuan San Bartolome kalean. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Merke. 667 528 550

Pertsona arduratsua eta lanarekin etxebizitza bila Elgoibarren. Gehienez 400€ko alokairua ordaintzeko prest. 626 879 255

LOKALAK.....**Alokairua**

Gazteentzako lokala alokagai Kalamua 4. zenbakian. Erabat ekipatua eta segurtasun neurri guztiekin. Udal ordenantza betetzen du. Informazio gehiago telefono zenbakira hots eginda edo Gabilondo inbiliarian. 610 893 332

Xagua taberna alokatzen da, San Frantzisko kalean. 605 741 485.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Nire komunitatean, lehen solairuko bizilagunak arazoak dauzka arratoiekin. Hainbat bizilagunek eraikinaren azterketa egin dute eta lurretan karraskariak ibili direla konturatu dira. Zoruen eta tabikeen egoerari erreparatuta, badirudi badagoela horiek pasatzeko aukera zorua ez dagoelako hormigoituta. Presidenteak aurrekontua eskatu du arazo hori konpontzeko, baina jakin nahi nuke komunitatek derrigorrez ordaindu behar al dituen etxebizitza horren lur azpiko eta teilatuko arratoiak kentzeko lanak.

Elementu pribatuak zein komunak izan, sabai aizun edo etxebizitzako beste guneetan saguak eta arratoiak egotearen arazoak eraikinaren bizigarritasunean du eragina. Gai horretan aditua den norbaiti galdetuz gero, esango du komunitatean ezin dela arratoi, sagu edo intsektu izurrite bat kontrolatu -batzutan eraikin osoan-lanak gabe, beraz, elementu komunak kontrolatu behar direla.

Legearen arabera, komunitatearen betebeharra da eraikinaren, zerbitzuen eta guztien instalazioen mantenu eta kontserbazio egokirako lanak eta obrak egitea. Horren baitan segurtasunerako, bizigarritasunerako eta sarrrera errazteko beharrezkoak diren oinarrizko baldintzak jartzea, baita apaintzeko baldintzak zein Administrazioak kontserbaziorako legez araututakoak betetzea ere. Beraz, jabeen komunitateak egin beharko die aurre-lanei.

AHOLKUA: Horrelakoetan komeni da tekniko baten iritzia jasotzea eraikinean egindako azterketaren ondoren, nola dagoen ikusita, egoerari irtenbide orokor bat emateko modua jakinarazi dezan.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Julen** Blanco Gantxegi, hilaren 19xan 6 urte bete zenituen eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **prinzesa**, 6 urte egin dituzulako. Etxekoen partez.




Zorionak, **Estanis**! 7 urte bete dituzulako! Muxu handi bat familiaren eta bereziki Danelen partez.



Zorionak, **Laia**! gaur bi urtetxo! aititita, amama, osaba-izeba eta lehengusuen partetik muxu potolo bat.



Zorionak **Lander** urtarrilaren 25ean 6 urte. Aititita eta amama eta bereziki Mararen partez, muxu handi bat, txapeldun!



Zorionak, **Mar-ke**! Atzo 12 urte. Txokolatearen zain gaude. Sare, aita, ama eta familia osoaren partetik.



Zorionak, **Lucia**, etxeko guztien eta bereziki Ivanen partez. Musuak!

Erretratu bakarrekog agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekog agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

atzak
taberna
San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183
Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

BASIC
BETAURREKO PROGRESIBOAK
197€
Uzuri optika audio
ELGOIBAR - DEBA
Kontsultu izazu konpainiaren espezialistak. Ez dagoen berriz ez gaituzte berriz.

Antonio Berasaluze Bernedo

2016ko urtarrilaren 14an hil zen, 83 urte zituela



Nonbait baldin bada zeru gure tio Antonio da Aingeru.

Eskerrik asko gu horrela maite eta zaintzeagatik.

Laura, Cristina eta Ana



22 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *Loreak* (gaztelaniaz). Antolatzailea: Haizea. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23:00 Kontzertua: Cerebral Effusion. Antolatzailea: Sinuose. Sarrera 3 euro. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.

23 ZAPATUA

16:00 Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa. Lanbroan.

19:30 Juan Muguerza krosa. Korrikalariei harrera. Marrazki lehiaketako sari banaketa. Udaletxean.

24 DOMEKA

10:00 Juan Mugertza krosa. Lasterketak. Mintxetan.

19:00 Zinegiro Goritan-Sutegiko filmak. EH filmak-Vacas.

26 MARTITZENA

17:00-18:00 Ipuin kontalaria: *Ones in a blue moon*, Annie Funny. 17:00etan HH5 eta 18:00 LH1. Udal Liburutegian.

18:00 Tertulia literarioa: *Las dos caras de enero* – Patricia Highsmith. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

27 EGUAZTENA

17:30 Makina Erremintaren Museora bisita gidatua. Antolatzailea: Haizea. Hitzordua: museoko atean.

19:00 *Glencree* dokumentala eta mahai-ingurua. Hizlariak: Marixabel Lasa eta Edurne Brouard. Kultur Etxean.

29 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odol-ematea. Antolatzailea: Elgoibarko odol-emaileen elkarte. Osasun zentroan.

31 DOMEKA

Gorputz espresio ikastaroaren hasiera. Hilean behin izango da. Uxue Pascual psikologo eta dantza mugimendu terapeutaren eskutik. Izenemateko edo informazio gehiagorako: 686 793 024. Mendaroko Kultur Etxean.

ORBE



**PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAZ ADITUAK**

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

Eguberrietako zozketak

PARROKIAKO GABONETAKO LOTERIA: Elgoibarko parrokiako **29.190** zenbakiak saria du Gabonetako loterian. Txartel bakoitzeko 2 euro Rural Kutxan kobratu daitezke martxoaren 22ra arte.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO (2015ean eta 2016an jaiotakoak), otsailtik ekainera hasteko, matrikulazio aldia zabalik urtarrilaren 19tik 29ra

elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus
943 744441












Zinea (Herriko Antzokian)



'Star Wars: el despertar de la fuerza'

22 Barixakua, 21:30

23 Zapatua, 19:00/

22:15 (Jatorrizkoa azpitoluekin)

24 Domeka 19:00

25 Astelehena 21:30

'Carlitos y Snoopy'

24 Domeka 16:30

'Invictus'

28 Eguena 21:30 (Doan)

'Paulina'

29 Barixakua, 21:30

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

22 Barixakua YUDEGO

23 Zapatua ORUESAGASTI

24 Domeka FERNANDEZ

25 Astelehena BARRENETXEA

26 Martitzena IBAÑEZ

27 Eguaztena GARITAONANDIA

28 Eguena ETXEBERRIA

29 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar) - Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

Abenduan hildakoak

Maria Teresa Usobiaga Osa

93 urte, abenduak 9

Daniel Legorburu Gabilondo

87 urte, abenduak 12

Victoria Zabaleta Barrenetxea

86 urte, abenduak 17

Baltasara Alonso Fernandez

90 urte, abenduak 22

Adela Fernandez Arias

78 urte, abenduak 22

Lucia Arizaga Arrillaga

81 urte, abenduak 29

Abenduan jaiok

Oharra: ezinezkoa izan zaigu abenduan jaiotako en zerranda ematea, erregistratzeko sistema aldatu berri baitu Bake-Epaitegiak. BARRENEK arazo hau konpontzeko ahalegina egingo du datozen asteetan.



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com



Eire Vila

Mikel Olaizola



Bukaera ordena tudenak azkenak argia itzali eta giltzari buelta emanda imajinatzen ditugu. Askotan, ordea, gertakariak arrastaka garamatzate eta korrika uzten ditugu espazio intimoenak: argia piztuta, egutegia horman, hozkailuan oraindik elikagai apurrak.

Gero denbora batez jarraitzen dute iristen bankuko fakturek, irauten dute kaktusek nola edo hala, edo jotzen du orain-

dik ere noizbehinka telefonoaren txirrinak, nork erantzun izan ez arren. Behin izan zen indar baten inertziak. Baina azkenean moztzen dute argindarra, hasten dira erortzen pixkanaka beirate eta fatxada zatiak, eta hauts geruza batek estaltzen du dena. Bizitza lekutu dizun etxe hori heriotzaren aterpe da orain, iraganaren tranpa baino ez.

Nola iristen gara horraino? Izan liteke txakurrak segika sumatu eta atzeko leihotik errepidera salto eginda agurtu izana, presaka, noiz arte jakin gabe. Posible da iluntzeroko *Goenkale* ikusiz heriotzak gozo

eraman izana, eta gorbatadun gizon batek hileta-autoan gorpua sartu ondotik ixtea atea azkenekoz. Edo, besterik gabe, erabakitzea lehengusinarekin batera astebete Mediterraneoko hondartza batean pasatzea, hezurren mesede, eta astea urte bihurtzea, harik eta gure bazter lanbrotsuen falta leundu eta ahaztu arte.

Aurrera egiteko atzean utzi beharra ere badago, ate zaharrak itxi eta lur berrietara jauzi egin. Beti ez daude gure esku, baina gauza ederra dira bukaera ordenatuak, adostuak, gorrotorik gabeak. Itzuliko bagara ere...

“Beti ez daude gure esku, baina gauza ederra dira bukaera ordenatuak, adostuak, gorrotorik gabeak”

2016-2017

Zatoz!

DBHko aurrematrikula epea zabalik otsailaren 2tik 13ra.

Gurasoentzako bilera irekia ARREITURREko liburutegian urtarrilaren 27an, arratsaldeko 18:00etan.



Elgoibar Arreiturre BHI
San Roke, 11
Tel.: 943 748 397
E-posta: www.elgoibarbhi.eus



Elgoibarke Herri Eskola
Kalemaia, 8
Tel.: 943 740 879
E-posta: 012777a@hezkuntza.net



Aurkezpen bilera irekia,
urtarrilaren 25ean,
Ikastolan,
19:00

**2016-17 ikasturterako,
HHO2tik gora, izena emateko
epea irekita, urtarrilaren 5era
otsailaren 5era**



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441



ikastolan



denok gara

gu



ikastolen elkarte

